

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKERek bizitegi-eremuko energia-eraginkortasuna sustatzen du

- ▶▶ *Zentro teknologikoak RESPOND ekimenean parte hartzen ari da, zeinaren xedea energia-kontsumoaren eraginkortasuna hobetzea den*
- ▶▶ *Zentroa, proiektu honetan, bizitegi-komunitateetan aurrezteko plataformak garatzeko ardura dauka*

(Eibar, 2019ko urriak 1).- “Eskariaren kudeaketa aktiboa” terminoak (ingelesez, Demand Response, DR) erabiltzaileei eskari-igoerek edo hitzartutako pizgarri batean egindako aldaketa batek eragindako prezio-aldaketei erantzute aldera energia-kontsumoaren inguruan dauzkaten ohiturak nahita aldatzeko aukera eskaintzen dien edozein ekimen hartzen du bere baitan.

DR programak energia berriztagarrien tokiko ekoizpen eta metatze-aukerekin konbinatzen direnean, energia-kontsumoa optimiza daiteke, eta nabarmen murriztu sareko energia-eskaria. Ondorioz, interesdunek energia eta kostuak aurreztu ditzakete energia-horniduraren kate osoan. Industria-sektorean, azken urteotan ezarri dira programa horiek.

Egoitza-sektorean, ordea, gutxi ari dira garatzen, eremu horretako [energia-kontsumoa guztizko energia-kontsumoaren %25,3 izan arren](#). Gainera, herritarren %30ek elkarlaneko energia-eredu jasangarri baten parte izan nahi du (CE-Delft para Amigos de la Tierra Europa, EREF, Greenpeace eta REScoop.eu, *El potencial de los ciudadanos energéticos en la Unión Europea* (2016)).

Gaur egungo premia horri erantzute aldera, eta herritarrek energiaren inguruko ohiturak aldatzeko prestasuna dutela aprobetxatuta, hainbat egoitza-komunitate motatan energia-eskaria lankidetzan eta modu aktiboan kudeatzeko irtenbideak bilatzen ditu RESPOND proiektu europarrak, **energia-kudeaketa eraginkortasunaren nahiz errentagarritasunaren ikuspuntutik hobetzeari begira.**

Erreminta igarleak eta mugikorrerako aplikazioa

Europako ekimenaren kudeaketa-taldeko kidea izateaz gain, eguraldi-iragarpenetan, jokaera-patroietan, energia-merkatuan eta eskuragarri dauden baliabideen malgutasunean oinarritutako iragarpenak eta gomendioak eskainiko dituzten tresnak garatzeaz arduratzen da IK4-TEKNIKER.

Halaber, zentro teknologikoa gailu mugikorrerarako aplikazio bat ari da garatzen. Bada, aplikazio horrekin, egoiliarrek informazio hori guztia ustiatu ahaliko dute, eta etxean dauzkaten gailuen gainean jardun, tresnaren abantailak ahalik eta gehien baliatzeko.

RESPOND programa hiru urtez ezarriko da Europako hainbat eskualde klimatiko eta sozioekonomiko biltzen dituzten hiru kasu pilotutan: Irlandako Aran irletako kooperatiba batean, Aarhus-eko etxebizitza sozial batzuetan (Danimarka) eta Madrileko apartamentu-gune pribatu batean.

Europako ekimen horren esparruan, era berean, hainbat fabrikatzailereren *smart home* gailuak monitorizatuko dituen IoT (*Internet of Things*) plataforma bat ari dira garatzen. Bada, modelizatu fisikoko tekniketan, arauetan, adimen artifizialean eta ikaskuntza automatikoan oinarrituta dauden zerbitzu analitikoek multzoa eskainiko du IoT plataformak, eta, zerbitzuokin, etxetresna elektrikoek eta beroketa eta hozketa-sistemen erabilera optimizatuko da, tokiko energia-sorkuntzaren eta energiaren orduen araberako prezioaren arabera.

Plataforma, mugikorrerarako aplikazioarekin batera, erabiltzailearen lehentasunetara egokitu daiteke, jakinarazpenak eta gomendioak bidaliz edota ekintzak berehala zein programatuta automatizatuz.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////

This project is co-funded by the European Commission under the "H2020-EE-2017-PPP Integration of Demand Response in Energy Management Systems while ensuring interoperability through Public Private Partnership" under Grant agreement No. 768619